

## Bake Planaren mikroakordioak

### 1) Iraganaren partekatutako balioespena egiteko konpromiso etikoaren proposamena

“Etorbizuneko bakeak eta bizikidetzak biolentziaren bidegabekeriaren aitortzea eskatzen dute, sortutako minaren eta biktimen duintasunaren aitortzea, biktima guztiak egitarako, justiziarako eta erreparaziorako eskubidea dutelarik. (Legebiltzarraren 2013ko martxoaren 14ko erabakia)

Jazotakoa —terrorismoa, indarkeria eta giza eskubideen urraketak— gertatu zen talde eta pertsonen giza duintasunaren aurrean beste helburu batzuk ezarri zituztelako, hau da, kausa baten, helburu baten, estatu-arrazoi baten, ikuspegi ideologiko baten edo bestelako sinismen edo usteen defentsa.

Etorbizunean, inoiz gehiago ez, ez kausa politikorik edo arrazoi partidariorik, ez bestelako uste osorik edo ziurtasunik ez da jarriko, balio absolutu bat izango balira bezala, giza eskubideen, pertsonaren eta bizitzaren balioaren gainetik”.

### 2) Orainaldian konfiantza-esparrua lortzeko konpromiso politikoaren proposamena

Hitz ematen dugu, gure aldetik, ETaren indarkeriaren bukaera ez dela izango, besterik gabe, orria pasatzea, kontuak argitu gabe, errekonozimendurik gabe eta gertatutakoari buruzko kritika espliziturik gabe.

Hitz ematen dugu gure aldetik biktimen oroimena eta ohorea ez direla bazterturik geratuko, iragana ahazturik etorkizunera begiratzeagatik.

Hitz ematen dugu ez dugula indarkeria eta giza eskubideen urraketak justifikatuko dituen historiarik berridatziko, eta halakoak idaztearen eta erabiltzearen kontra egongo garela.

Hitz ematen dugu biktima guzti-guztiak, baita legez kontrako kontraterrorismoenak ere, —parekatzat jo gabe—, merezi duten errekonozimendua eta ordaina jasoko dutela.

Hitz ematen dugu gure aldetik indarkeriaren amaiera ez dela ezein sektoreren aurkako mendeku bilakatuko, integrazio eta bizikidetzarako gizarte-egituraketa baizik.

Hitz ematen dugu, legez dauden aukeren barruan, gizartearen normalizazioak presoen eta espetxe-politikaren kontuari helduko dida, gizarte-errealitate berriarekin bat etorrira.

Hitz ematen dugu gure aldetik indarkeriaren amaierak bakea eta bizikidetzaren normalizazioa ekarriko dituela eta gizartea elkartzeko proiektu, prozesu eta programa bat ahalbidetuko duela.

### 3) Gizartearen eta hezkuntzaren arloko konpromisoa

Oinarritzko lau arauak bizikidetzan aplikatuta:

Bake-kulturaren sustapenak eta gatazka suntsitzailen, giza eskubideen urraketan eta mota guztietako indarkeria-fenomenoen prebentzioak lotura zuzena dute bizikidetzaren

urraketaren honako lau arrazoi hauei ematen zaien erantzunarekin: dogmatismoa, fatalismoa, manikeismoa eta sektarismoa. Prebentziozko erantzun hori eratzearen, gizartearen eta hezkuntzaren arloko konpromiso bat garatzea adostu dugu, lau hezkuntza-oinarri alternatiboren bitartez.

**Kenketa.** Bizikidetzazera zera da, gure ikuspegia beti osatu gabea dela onartzea. Mugen esperientzia hezigarriak dogmatismoari aurrea hartzen dio eta elkarriketa eta indarkeriarik eza sustatzen ditu.

**Batuketa.** Bizikidetzazera zera da, zailtasunen artean aukerak sustatzen ikastea. Balio positiboaren esperientzia hezigarriak fatalismoari aurrea hartzen dio eta aniztasuna sustatzen du.

**Zatiketa.** Bizikidetzazera zera da, egoera bakoitzean gure erantzukizun etikoa geure gain hartzea. Kontzientzia etikoaren esperientzia hezigarriak manikeismoari aurrea hartzen dio eta enpatia eta elkartasuna sustatzen ditu.

**Biderketa.** Bizikidetzazera zera da, giza duintasunaren errespetuaren goi-mailako balioa ulertzea. Giza duintasunaren esperientzia hezigarriak indarkeriara jotzeari aurrea hartzen dio eta giza eskubideen errespetua sustatzen du.

Aurrera begira eta gure helburuak indarkeriaren prebentzioa, giza eskubideen babes unibertuala eta gizartearen elkartzeko bizikidetzaren eta bakearen kultura direla kontuan izanik, gizartearen eta hezkuntzaren arloko zeharkako proiektu integrala sustatzeko konpromisoa hartzen dugu, betiere lau oinarri etiko horiei buruzko adostasuna abiapuntu hartuta. Hainbat eremutatik modu osagarrian sustatzea proposatzen dugu, modu sinple, sortzaile, libre eta askotarikoan.